

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AIZARNAZABALGO UDALA

Iragarkia

Alkatetza honek aditzera ematen du Udal Osoko Bilkurak, 2021eko urtarrilaren 27ko bilkuran, hau erabaki zuela:

Premiazko deialdia, Covid-19 koronabirusaren bila-kaerak eragindako galerak arintzeko ostalaritzara, merkataritzara eta zerbitzuetara bideratutako establezimenduentzako diru-laguntzak emateko.

1. Xedea eta diruz lagundu daitekeen aldia.

Diru-laguntza deialdi honen helburua da Aizarnazabalgo ostalaritzako, merkataritzako eta zerbitzuetako establezimenduen jarduera ekonomikoari laguntzea, Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurrien eraginpean egon badira, aipatutako establezimenduen desinfekzio lanak egiteko kanpoko enpresen bidez.

Horretarako, aldizkakoak ez diren baliabide ekonomikoak emango dira.

2. Diru-laguntzak.

Lokalak desinfektatzeko jarduketagatiko diru-laguntzaren zenbatekoa fakturaren zenbatekoaren % 70 izango da, BEZik gabe.

3. Onuradunak.

3.1. Aurreikusitako laguntzen onuradun izango dira erabilerak eta zerbitzu publikoko lokalak desinfektatzen dituzten pertsonak.

3.2. Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte 2021eko urtarrilaren 1ean:

a) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan eta Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

c) Aizarnazabalgo Udalarekin inolako zorrik ez izatea.

d) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako gainerako egoeretan, onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Aipatutako baldintzak diruz lagun daitekeen aldiaren mantendu beharko dira, eta, gutxienez, hura amaitu ondorengo lau hilabeteetan.

4. Diru-laguntzaren izaera.

Laguntza-lerro hau bateragarria izango da beste administrazio publiko eta pribatuek abian jar ditzaketen laguntzekin, betiere Covid-19ak eragindako galera baino ez bada jasotzen diru-laguntza. Hala badagokio, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako araudian aurreikusitako itzultze-prozedura abiaraziko da.

AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL

Anuncio

Esta Alcaldía hace público el siguiente acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 27 de enero de 2021.

Convocatoria urgente para la concesión de ayudas económicas destinadas a establecimientos destinados a la hostelería, comercio y servicios para paliar las pérdidas ocasionadas por la evolución del coronavirus Covid-19.

1. Objeto y periodo subvencionable.

El objeto de esta convocatoria de subvención es ayudar a la actividad económica de aquellos establecimientos de hostelería, comercio y servicios del municipio de Aizarnazabal que se han visto afectados por las medidas adoptadas para hacer frente al Covid-19 por trabajos de desinfección de dichos establecimientos por empresas externas.

Para ello se otorgarán recursos económicos de carácter no periódico.

2. Subvenciones.

El importe de la subvención por actuación de desinfección de los locales será del 70 % del importe de la factura sin IVA.

3. Beneficiarios.

3.1. Serán beneficiarias de las ayudas previstas las personas afectadas que realicen actuaciones de desinfección de los locales de uso y servicio público.

3.2. Las personas beneficiarias deberán reunir los siguientes requisitos a fecha 1 de enero de 2021:

a) Estar en alta en el IAE y en el Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos.

b) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

c) No tener ninguna deuda, de cualquier tipo, con este Ayuntamiento de Aizarnazabal.

d) No estar incurso en ninguna de las restantes circunstancias previstas en el apartado 2 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, para obtener la condición de beneficiario.

Los requisitos señalados se deberán mantener durante el periodo subvencionable, y, al menos, en los cuatro meses posteriores a la finalización del mismo.

4. Carácter de la subvención.

Esta línea de ayudas será compatible con las ayudas que las otras administraciones públicas y privadas pueda poner en marcha, siempre y cuando no se perciba más subvención que la pérdida derivada de la Covid-19. En su caso, se pondrá en marcha el procedimiento de retorno previsto en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa aplicable.

5. *Aurrekontu-kreditua eta diru-laguntzaren ordainketa.*

Diru-laguntza horretarako aurrekontua 2.000,00 €-koa da, eta dagoen eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, proportzionalki banatuko da.

Diru-laguntzaren helburua bete dela justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

6. *Eskabideak aurkeztea eta izapidetzea.*

Diru-laguntzaren eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Eskabideak Udalaren erregistro orokorrean eta webgunean dagoen eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira: www.aizarnazabal.eus.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- FZren kopia.
- Eskatzailearen edo ordezkariaren NANaren kopia.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren kopia.
- Banku-kontuaren titulartasun-ziurtagiria.
- Autonomoen abenduko kotizazioa jasotzea.
- Egindako desinfekzio lanen faktura.

7. *Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskabideak 2021eko abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

8. *Instrukzioa eta proposamena.*

Idazkaritza Kontuhartzaitza Sailari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen instrukzioa egitea, eta ebazpen-proposamen bat egingo du.

Diru-laguntza Alkatetzaren ebazpen bidez emango da.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Hori guztia, emandako diru-laguntzak Udalaren webgunean argitaratzeari kalterik egin gabe.

Emandako diru-laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, onuradunak adierazitako kontu korrontean, diru-laguntzaren xedea justifikatu ondoren.

9. *Oinarriak ez betetzea.*

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza betetzen ez badu, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu eta dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio.

Aizarnazabalgo Udalak edozein datu edo inguruabar egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo justifikazio guztia eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

10. *Aplikatu beharreko araudia.*

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta gainerako arau aplikagarrietan xedatutakoa aplikatuko da.

11. *Arauk garatzea eta betearaztea.*

Aizarnazabalgo Udaleko alkateak emango ditu oinarri hauek garatu, gauzatu eta interpretatzeko behar diren egintza guztiak.

Aizarnazabal, 2021eko urtarrilaren 27a.—Mari Carmen Arregi Agirre, alkatea. (505)

5. *Crédito presupuestario y abono de la subvención.*

El presupuesto destinado a esta subvención es de 2.000,00 € y en el caso de que no sea suficiente para atender todas las demandas existentes, se distribuirá proporcionalmente.

El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.

6. *Presentación y tramitación de solicitudes.*

La documentación que deberá acompañarse a la solicitud de subvención será la indicada a continuación:

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se encuentra disponible en el registro general y página web del Ayuntamiento: www.aizarnazabal.eus.

Junto a la solicitud, deberá presentarse la siguiente documentación:

- Copia del NIF.
- Copia del DNI del solicitante o representante.
- Copia del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- Certificado de titularidad de la cuenta bancaria.
- Recibo de la cotización de autónomos de diciembre.
- Factura de los trabajos realizados.

7. *Plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes podrán presentarse hasta el 31 de diciembre de 2021.

8. *Instrucción y propuesta.*

Corresponderá al Departamento Secretaría Intervención, la realización de la instrucción de las ayudas previstas en la presente convocatoria, que realizará una propuesta de resolución.

La subvención se otorgará mediante resolución de Alcaldía.

La resolución del procedimiento se notificará individualmente a las personas o entidades interesadas de conformidad con lo previsto en el artículo 41.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Todo ello, sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento.

El abono de la subvención concedida se realizará mediante transferencia bancaria, en la cuenta corriente señalada por la persona beneficiaria, una vez justificado el objeto de subvención.

9. *Incumplimiento de las bases.*

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de las condiciones establecidas en las presentes bases conllevará la declaración de la pérdida de derecho a la subvención, la obligación a restituir las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente.

El Ayuntamiento de Aizarnazabal podrá exigir al solicitante cuanta documentación o justificación que estime necesaria para la comprobación de cualquier dato o circunstancia.

10. *Normativa aplicable.*

En todo lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en las demás normas de aplicación.

11. *Desarrollo normativo y ejecución.*

El Alcalde del Ayuntamiento de Aizarnazabal dictará cuantos actos sean necesarias para el desarrollo, ejecución e interpretación de las presentes bases.

Aizarnazabal, a 27 de enero de 2021.—La alcaldesa, Mari Carmen Arregi Agirre. (505)